



**FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO
ZINEMAREN
XII. ASTEA**

Euskarazko azpitolu
elektronikoak
Principe zinean egunero
19:45etan

- **Godzilla munstroaren aurka** (*Mosura tai Gojira*) Azaroaren 3an
- **Majin Handia** (*Dai-Majin*) Azaroaren 4an
- **Godzilla Destroyerren aurka** Azaroaren 5ean
- **Onibaba** Azaroaren 6an
- **Lurraren armada babeslea** (*Chikyu Boeigun*) Azaroaren 7an
- **Erasoa Lurrari** (*Uchukin Tokyo ni Arawaru*) Azaroaren 8an
- **Banpiro begiak** (*Chi woo suu me*) Azaroaren 9an
- **Japonia munstroaren beldur-ikaraz** (*Gojira*) Azaroaren 10ean

Erne! Sarrerak dohainik Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XII. Asteko euskarazko saioetarako (azaroaren 6tik 10era bitarteko emanaldietarako) sarrerak dohainik nahi badituzu, dei ezazu astelehenera, 10:00etatik 14:00etara, 943 48 11 61 telefonora. Jasotako deien hurrenkeraren arabera eta horretarako Donostia Kulturak erreserbatutako sarrera kopuruaren arabera egingo da banaketa.

euskararen
donostia
patronatua

HISTORIA. Frantses iraultza eta XIX. mendea aztertuko dituzte, besteak beste, hizlariak



BOB EDME
Piarres Xarriton eta Manex Goienetek parte hartuko dute Haristoiaren omenezko jardunaldian.

Pierre Haristoi gaurko eguna eskaintzen dio Eusko Ikaskuntzak

Historialariaren heriotzaren mendeurrenean, haren ekarpenaz mintzatuko dira Aiherran

Nora Arbelbide | BAIONA

Pierre Haristoi historialaria 1833an Aiherran sortu zen eta 1901ean Ziburun zendu. Bere heriotzaren mendeurrena dela, historia eguna antolatu du gaur Eusko Ikaskuntzak Aiherrako trinketean.

«Historiagile bezala, bere aldekoak eta gaizki erraileak badiu. Baina guretzat parada izanen da Euskal Herriko historiografiari buruz ikuspuntu desberdinak aipatzeko» azaldu zuen Manex Goienetxe historialariak.

Izan ere, apaiza izaki, frankotan kritikatu izan da. Frantziako iraultzaz idatzi lanean adibidez, «bistan da, iraultzaren aurka eta Elizaren alde agertzen zela», Xipri Arbelbide idazleak

azaldu zuenez. Dena den, argi da ez duela «gezurririk erraten. Ematen dituen datuak zinezkoak dira. Ondoan jarri dituen komentarioetan du bere iritzia eskaintzen». Oro har, *Recherches historiques sur le Pays Basque* (Ikerketa historikoak Euskal Herriaz), edo beste lan franko erreferentziak izan dira luzaz.

Hitzaldia, gaur egungo ikerketen azaltzeko aukera

«Haristoiaren tresnetik ibili gara ehun urtez» damutu zen Manex Goienetx. «Kritikatu dute franko, kopiatu ere tira ahala, baina geroztik ikerketa serioerik ez da egin» gehitu zuen.

Gaur egun ordea, ikerlari berriak iritsi dira. Haien artean, Pascal Goñi garaztarra, Haristoiaren tesia egin duena. Hain zu-

FRANTZIAKO IRAULTZA

Pascal Goñik berri hartuko du Haristoiak Frantziako iraultzaz egin zuen lana

HISTORIA AIPAGAI

XIX. mendeko Euskal Herriko historiografiak egin ikerketaren berri emanen du Goienetek

zuzen, 17:00etan ikerketaz hitz egingen du frantsesez. Azken hitzaldi honek egunari amaiera emanen dio.

Guztira bederatzi mintzaldi izango dira. Piarres Xarriton lehenik mintzatu da Haristoiaren biziaz goizeko 10:00etan. Xipri Arbelbide 1792 eta 1802 arteko ezkontza eta bataioez mintzatu da. 11:00etan Goienetek XIX. mendeko historiografia aipatu du. Ondoren Arbelbidek berri hitza hartuko du Bernard Larregi erretorearen diru harremanak aipatzeko.

15:00etan Dominique Robinek iraultzako Donibane Lohizunez ariko da. 15:30ean Yvette Cardaillacek Euskal Herriko erlijio guttitiuak aipatu ditu. Ondoren Patrick Castoreo historia irakasleak 1880 eta 1914a arteko euskararen irakaskuntza ukatzen du gaitzat. 16:30tan, Claude Mehatsk emigrazioa ikertuko du.

IKERKETA LANA

Frantses iraultzaren ondorioak herriz herri

Pierre Haristoiak Frantziako Iraultzaz idatzi lanak ditu beharbada oihartzun handienak ukan. Hiru tomotan zatitzen den *Les Paroisses du Pays Basque au XVIIIème siècle pendant la période révolutionnaire* (Euskal Herriko parrokiak XVIII. mendeko iraultza garaian) bildumak luzaz ez du haren mailako segidarik ukan. Liburuaren hasieran, 1789ko iraultzaren datu orokorrak

ematen ditu, batez ere, Euskal Herriko gertakariez. Ondoren, Ipar Euskal Herriko herri guztiak banaka aipatzen ditu. Bakioztaren historia berri hartzen du. Liburuetan noiz agertzen diren lehenik baita herriaren berezitasunak, Isturitzeko harpeak bezala. Baina liburu horien funtsa, herri bakoitzean iraultzaren ondorioen azterketa da, batez ere Terrorearen garaikoa. Izan ere, herriak, deportatuak izan diren jende guzieren izenak emanak dira; apezak, noble eta jende arruntenak. Bertan ukaiten da, besteak beste, xeheki Sara inguru-

ko herritarren berri. «1793an, 237 saratar Cabretoneko elizara eraman zituzten, bertan denbora luze batean utziz» azaldu zuen Xipri Arbelbide idazleak EGUNKARIA-ri. Horrez gain xehetasun franko daude deportazioaren egoeraz. «Adibidez, komunetara joateko gogoaz bazuten, kaka elizaren barmean egitera behartuak ziren, teila batean. Ondoren, teila eskuan dutela, binaka atera behar zuten hiru soldaduk inguratuz» esplikatu zuen Arbelbidek. Bestalde, iraultza garaiko euskal kantuak, iraultzaren aurkakoak badaude.